



BIZITEGI ERAIKINA
B MAILA**PRIM 7****Egilea eta data: Manuel de Echave, 1896.****Deskribapena**

Hasieran eraikinak bastardea gehi hiru oin zituen, erdiko patio eta eskaileratik sarrera zuten alderik aldeko bi etxebizitzekin. Goi oinetan kokatutako iparraldeko etxebizitzak handitu egin zituzten, jatorrian barruko eskailerarik ez zuten aldameneko eraikineko (Prim 5) etxebizitzekin bat eginez. 1923an, sute baten eraginez estalkia suntsitu ondoren, Lucas Aldayk bi eraikinetan lan egin zuen, bietan bi oin gehiago eraikiz. Lehen jasodura fatxada plano berean eta bigarrena atzeraemangunean, jatorrizko konposizioarekin jarraitasunean eginak. Era berean, 05 zenbakian eskailerak egin zituen eta eraikin bateko eta besteko etxebizitzak bereizi zituen. XIX. mendearen amaierako apaindurazko xehetasunak dauden arren, fatxada neoklasiko honek Zabalduraren lehen faseko eraikinetan erabilitakoen antzeko sistema du. Aurrealde bikoiztu bera da, begiratokiekin eta, oin bakoitzeko bi etxebizitzaren arteko analogiaren ondorioz, fatxadak zazpi bao ditu, erdikoari garrantzi handiagoa emanez.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen B babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berriazko erregimena.

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak: ez.

B.- Elementu iraunkorrak: Harlanduzko elementuak.

C.- Handitzeko edo aldatzeko murrizketa partikularrak: ataria jatorrizko elementuekin kontserbatuko da, aldaketarik gabe.

D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, aurreko aurreikuspenen aplikazioaren emaitzazkoen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dituztenak barne harturik.